

The image features a stylized profile of a woman's head and shoulders, facing left. The silhouette is filled with a complex, multi-colored pattern of geometric and floral motifs in shades of red, purple, and blue. The background is a light gray with a repeating pattern of white geometric shapes and intricate mandala-like designs. The text is centered over the woman's face.

Arabako Errioxako Emakumeak

Arabako Errioxako Emakumeak

HISTORIAK HEMEN DESKARGA DITZAKEZU:

<http://www.bitarteanjolasean.org/>

EGILEA:



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

FINANTZATZEN DU

Aurkezpena

Liburu honetan Lan-ibilbide, jatorri kultural eta bizitza anitzak dituzten Arabako Errioxako hainbat emakumeren bizitzak jaso ditugu beren eginkizun sozialak balioetsi eta ikusgarritasuna emateko asmoz.

Norberaren bizitza historian zehar, badira beste pertsona batzuekin partekatzen ditugun ezaugarri eta uneak, baina oro har, bizitza guztiak bakarrak dira. Geure bizitza historiak gure izaeraren adierazpen gisa, guztiok berezi egiten gaitu.

Hemen hamar historia jaso ditugu, hamar emakume: beren bizipenak, sentimenduak, emozioak, zoriontsu izateko borrokak, ekimenak eta baloratuak sentitzeko nahia azaltzen. Beren hitzen bitartez euren bizitzako bideak ibiliko ditugu eta heuan parte sentitu.

Haiei guztioi, eskerrik asko parte hartu izateagatik, beren bizipenak oparitzeagatik eta landa-emakumea ikusgarri egiteagatik.

“Asko kostatu zaigun arren, orain badakigu ahalduntzea,
barneratzeak eta abian jartzeak, libre egiten
gaituela eta gu geu izan gaitzekel!”

Arabako Landa-inguruko Emakumeen Sarea

E.

Bilbotarra naiz jaiotzez eta bastidarra adopzioz; emakumea naturak hala erabaki zuelako, beganoa nire printzipioengatik eta idazlea bizitzeko beharrezkoa dudalako.

Hitza da nire tresna; kontatzen ditudan istorioak imajinatzea, berriz, nire bidea. Atsedan hartzen dut egunero nire poema eta narrazioetara itzultzean, eta nire literatura-lanetik bizi ahal izatea izango dut sostengu egunen batean.

Nahiago dut beti bizitzaren alde onekin geratu. Horregatik, hemen ez dut igarotako ezbehar edo garai txarrez hitz egingo; poza ekarri didaten gauzak bakarrik kontatuko ditut.

Nire memoriako une zoriontsuenen artean, nire bi alaben jaiotzak daude lehen postuan. Haurrak hezteak eta hazteak dakartzan zailtasunak eta erantzukizuna itzelak badira ere, nire bihotza pozez bete dute urte hauetan guztietan.

Adiskidetasuna lortzea ere garrantzitsua izan da nire bizitzan; lagun gutxi ditut, baina adiskidetasun handia ematen didate. Alabaina, zalantzarik gabe, bizitzan egin dudan aurkikuntza onena eta garrantzitsuena betidanik nire barnean bizi izan den eta orain ezagutzen ari naizen izaera hori izan da.

Nire alaben aitarengandik banandu nintzenean, beti egin izan nuena profesionalki egitea erabaki nuen: idaztea. Eta bide horretan nago orain.

Hemeretzi ipuin pertsonalizatu idatzi ditut, enkargu bidez. 2015ean *El corazón de la leona* nobela laburra argitaratu nuen neure kabuz; gazteei zuzendutako abentura-obra bat da, fantasia ukituak dituena. Udazken honetan nire bigarren liburua aurkeztu dut, poemaz beterikoa; batzuk nire barrenekoak dira, beste batzuk aldarrikatzaileak... Baina den-denek islatzen dituzte neure buruaren bilakaera eta filigranak.

Orain nire lan berria inprimategira eramateko prestatzen ari naiz. Haurrentzako ipuinen bilduma bat da eta zuri-beltzeko ilustrazioak izango ditu, margotzeko, baita orri zuriak ere, irakurleak bete ditzan. Hartara, irudimenari hitz-forma emateak dakarren magia ezagutuko du.

Hara! Neure burua aurkeztea ahaztu zait. Edurne naiz.



M.

Arabako Errioxa eta nire herria inspirazio-iturri ditut: ardo beltza, zuria, dantzak, mahastiak... Guardiakoana naiz, eta hemen ditut nire negozioa, familia, lagunak; ingurune hau dut inspirazio-iturri. Umetan eta gaztetan Santa Engracia kalean bizi izan nintzen; orain ordu asko ematen ditut bertan, josten eta sortzen. Pradejonekin amarekin eman nituen uden oroitzapen politak ditut. Arnedoko oinetako-industriarako zapatilak josten zituen, eta nik beti laguntzen nion hariak moztzen eta oinetakoak ordenatzen, igerilekura joan baino lehen. Etxean, amak josi egiten zuen: konponketak egiten zituen, barrenak josten zituen, botoiak josten zituen...


Olentzerok josteko makina txiki bat ekarri zidan –oraindik ere badut– eta hori erabiltzen nuen Coca-Cola botilei soinekoak egiteko. Hala ere, inoiz ez nuen pentsatuko modaren munduan lan egingo nuenik. Ez nekien moda-diseinatzaile ikasketak zeudenik; orain, berriz, Interneten, blogetan... erraza da prestakuntza-aukerei buruzko informazioa bilatzea.

Bartzelonan ikasi nuen, Felicidad Duce Goi Mailako Diseinu Eskolan. Bartzelonako hasierako egunak oso zailak izan ziren; asko kostatu zitzaidan familiari eta lagunei agur esatea, eta faltan botatzen nuen nire betiko ingurunearen segurtasuna. Bestalde, Bartzelonan harremanak bestelakoak ziren; kosta egiten zitzaidan sinestea jendeak betiko lagunik ez izatea. Ni joan eta urtebetera, Logroñon

diseinu-eskola bat ireki zuten. Eskerrak lehenago ireki ez zuten; izan ere, bestela ez nintzatekeen Bartzelonara joango, eta ez nuen etxetik kanpo egonda ikasi nuen guztia ikasiko. Karrera bukaerako proiekturako, Arabako Errioxa hartu nuen inspirazio-iturri. 8 *look* prestatu behar nituen, eta Guardiako dantzak, ardoak eta mahastiak erabili nituen inspiratzeko. Ardo zuri eta beltzez tindatutako jantziak diseinatu nituen, mahatsondo-hostoak brodatu nituen eta Guardiako dantzariak eramaten dituzten alkandoren antzekoak egin nituen. Bilduma benetan berezia izan zen niretzat.

Pena ematen dit Erasmus egin ez izanak edo beste herrialde batzuetara kooperante gisa bidaiatu ez izanak. Orain lan handia dut tailerrean, baina, nori daki, agian etorkizunean... Nire ustez, garrantzitsua da gazteok kanpora ateratzea eta ikastea; bidaiatzea, alegia. Ikasle nintzenean, ez nintzen hizkuntzetan bat ere iaioa; diru asko inbertitu dut ingeles-eskoletan, eta orain, dendan, bezeroekin, ari naiz gehien ikasten.

Ikasketak bukatu ondoren, Guardiara itzultzea eta nire negozioa irekitzea erabaki nuen. Nire familiaren laguntzarekin, hiru hilabeteen lokala txukundu genuen, gaur egungo nire tailerra bertan jartzeko. Negozio bat irekitzea eta hari eustea ez da erraza; izan ere, administrazioarekiko betebeharrak bete behar dira, eta ezin jakin daiteke zenbat salduko duzun. Hala ere, oso harro nago. Egia da inor ez dela bere herrian profeta; hala ere, turismoari esker, nire negozioari eusteaz gain, harro esan dezaket nire sorkuntzak munduko hainbat txokotara iritsi direla, besteak beste Brasileran, Thailandiara edo Argentinara. Behin baino gehiagotan eskatu didatenez, jostuntza-tailerrak ematen hasi naiz. Udan, 7 urtetik gorako haurrei irakasten diet; oso aberasgarria da. Oso gustuko dute makinan jostea eta egunean zehar sortu dutena etxera eramatea. Helduentzako tailerrak ere badituzte. Oso aberasgarria da; izan ere, pertsona batzuk konponketak egiten ikasteko asmoz baino ez dira etortzen eta, azkenean, jantziak egiteko gai bihurtzen dira. Etorkizun hurbilari begira, proiektu pertsonal benetan garrantzitsua dut esku artean. Proiektu horrekin, nire alderdi sortzailea lanpetuta egongo da baina, aldi berean, obrak sortzen jarraitu beharko dut nire negozioak bide onetik jarrai dezan.



R.

Oiondarra naiz, edo, bertakooi adeitasunez esaten diguten moduan, “judua”. Hemen jaio nintzen eta bertan jarraitzen dut. Haurtzaro zorionsua izan nuen: etxean genituen animaliak zaintzen nituen eta egun osoa kalean igarotzen nuen, hainbat jolasetan: tortolasetan, kromockin, gomarekin, sokatiran... Neskak alde batetik eta mutila bestetik ibiltzen ginen. Ramiro de Maeztu ikastetxean egon nintzen 14 urtera arte, eta ikasten jarraitu nahi ez nuenez eta jostea gustatzen zitzaidanez, Contexye-n hasi nintzen lanean. Bertan egon nintzen 32 urtez, enpresa itxi zen arte. Orduan neure buruari esan nion denboraldi batean lasai egongo nintzela, baina bi hilabetera estututa nengoen eta zerbait bilatzen hasi nintzen; ezin nuen ezer egin gabe egon. Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko norbaiten bila zebilen bikote bat ezagutu nuen; proba egitea erabaki nuen, eta 9 urte daramatzat.

Txikitatik izan dut herriko bizitzan parte hartzeko grina. Lau urte igaro nituen *boy scout*-etan. Irteerak egiten genituen, oinez, ogitartekoa motxilan hartuta. Udan kanpaldia egiten genuen, Nieva de Camerosen, eta astebete edo 10 egun igarotzen genituen bertan. Gabonetan, berriz, jaiotza bizidun bat egiten genuen “El Damas” plazan. Nik garbitzaile-papera egiten nuen, ohola eta zapia hartuta, eta izugarri gustatzen zitzaidan. Bilerak egiten genituen astero, zer antola genezakeen ikusteko. Dantza-taldeko kide ere izan nintzen. Villabuenara joaten ginen dantza egitera, eta dantzarien topaketetan parte hartzen genuen. 16 urterekin, Oiongo Santu Zaindarien dantza

egin nuen. Ilara batean mutilak eta bestean neskak jarrita egiten genuen dantza, Gasteizen utzi zizkiguten puntudun jantziekin. Gaur egun ezin da egin, eta tristea da.

Ama izan nintzenean, ikastolak antolatutako jardueretan parte hartzen hasi nintzen, eta danborrada antolatzen aritu nintzen. Horrez gain, 18 urte daramatzat abesbatzan. Sortu zenean 40 pertsona ziren, baina orain 23 inguru gara. Finantziarioa lortzeko, ezkontzetan abesten dugu, eta diru horrekin partiturak eta zuzendariaren ordainsaria ordaintzen ditugu. Leku askotan abestu izan dugu: Guardia, Logroño, Ezcaray... Elkartrukeak egiten ditugu beste abesbatza batzuekin; herrira etortzen dira abestera, eta gero afaltzera gonbidatzen ditugu.

Oionen badago ohitura oso polit bat, eta nik ere parte hartzen dut bertan: San Bizente eta San Anastasioren aurorak. Betidanik gustatu izan zait, eta duela 10 urte zuzendariari galdetu nion ea abes nezakeen, ordura arte gizonek bakarrik abesten baitzuten. Galdetu egin behar zuela esan zidan; hainbat hilabete igaro ziren, eta abenduan deitu zidan emakumeok ere abes genezakeela esanez. Abesbatzakoei aipatu nien eta beste bi neskarekin joan nintzen. Hurrengo urtean beste bi sartu ziren eta orain 14 emakume eta 9 gizon izaten gara. Eskerrak eman zizkiguten emakumeoi joateagatik; izan ere, orain politagoa da, eta, gainera, gu hasi izan ez bagina ohitura galdu egingo litzateke. Aurora 23 aldiz abesten da, herriko mutur batetik bestera, eskusoinuaz lagunduta, hasi goizeko 4etan eta 8ak arte. Jarduera horiez gain, asko gustatzen zait irakurtzea, nire lagunekin paseoa ibiltzea, kuadrillak antolatzen dituen ibilaldietara joatea, alabari laguntzea eta Labrazara joatean, ahal dudan guztian parte hartzera.

Lehen elkarri gehiago laguntzen genion herrietan; egin beharrekoak ahoz aho zabaltzen ziren eta elkartu egiten ginen. Gaur egun beldurra ematen du zerbait antolatzeak, ez baitakizu jendeak nola erantzungo duen.

Herriko jardueretan parte hartzea gustatzen zait. Beti egin izan dut eta hemendik aurrera ere egingo dut, ahal dudan bitartean behintzat.



Arabako Errioxa nire bizitza da, Navaridastik Guardiara.

Navaridasen jaio nintzen, baina Guardiara ezkondu nintzen, eta ordudanik han bizi naiz. Txikia nintzenean, beti kalean egoten nintzen, nire neba-arrebak zaintzen. Bederatzi ginen, eta beti baten bat eraman behar izaten nuen gainean. Jolas askotara jolasten ginen: txirikilan, sokatiran, harrapaketan, ezkutaketan, lastoarekin... Neska-mutilok elkarrekin jolasten genuen, “maltzurkeria” hasten zen arte. Lan egitera eramaten gintuzten baratzerara, garbitegira (arropa garbitzera), mahastira... Oso bestelako garaiak ziren; egurra eraman behar izaten genuen eskolara, berotzeko, eta oso zigor gogorrak jasotzen genituen: erregelarekin jotzen gintuzten, hormaren kontra jarri behar izaten genuen besoetan liburuak genituela...

Aurrerago, Gasteizera joan nintzen, beka batekin, ikastera. Alabaina, beka kendu zidaten. Aitak esan zuen ezin zizkiela seme-alaba guztiei ikasketak ordaindu, are gutxiago alabei. Orain konturatzen naiz zeinen matxista zen hori; neskok jakinmin handia genuen, eta mutilek ez hainbeste, baina bazirudien guk egin genezakeen gauza bakarra etxeko lanak zirela, eta nik ez nuen mundu horrekin zerikusirik izan nahi.

19 urte nituenean, Logroñora joan nintzen lanera, nahiz eta etxean ez zidaten baimenik eman. Fabrika batean hasi nintzen eta, gero, lagun bati esker, okindegi batean saltzaile-lana aurkitu nuen, josten ikasten nuen bitartean. Bakarrik atera nuen bizimodua, etorri zitzaidan guztiari aurre egin nion. Irabazi nuen diruarekin gidabaimena atera

nuen. Ezkondu nintzenean, lan hori utzi nuen, baina senarrarekin batera butanoa eta gasa banatzen hasi nintzen. Instalatzaile-baimena eta salgai arriskutsuena atera nituen. Garai hartan, emakume gutxik egiten zuten lan, eta ni herriz herri ibiltzen nintzen kontagailuak begiratzan, isuriak edo erregulatzaileak konpontzen... Edozer egiten nuen.

Alargundu nintzenean, lan egiteari utzi nion, eta bizitza deskubritzen hasi nintzen. Hegalak zabaldu nituen. Lehenik eta behin, Done Jakue bidea egin nuen, motxila hartuta. Irunetik Santiagora joan nintzen; han, ni neu nintzen. Hainbat herrialdetako pertsonekin elkartu nintzen eta, hizkuntzarik jakin ez arren, elkar ulertzeko gai ginen. Bizipen benetan aberasgarria izan zen. Gero, Logroñoiko txirrindulari talde batean sartu nintzen. Irteerak, txangoak eta abar egiten ditugu. Egin genuen lehen ibilbidea Arabako Errioxako mahastien artetik izan zen, eta jada 9 urte daramatzagu elkarrekin. Jendeak asko parte hartzen du, oso ondo pasatzen du, Penintsulako hainbat txokotatik etortzen dira.

Horrez gain, Sherpa mendi taldearekin mendira ere joaten nahiz; han, emakume askorekin elkartzen naiz. Bizikletari eta mendizaletasunari esker, herrialdeko hainbat bide berde ezagutu ditut, hauek, besteak beste: La Gomera, Las Palmas eta Tenerife. Horrez gain, Frantziako Done Jakue bidea, Peru, Vietnam, AEBak, Loira harana, Danubioko ibilbidea, Frantziako Midi eskualdea, Italiako Dolomitak eta Mont Ventoux ere ezagutu ditut.

Izugarrizko zortea izan dut aurkitu ditudan pertsonekin eta bidaide izan ditudanekin. Aterpetxeetan, kanpin-dendatan edota autokarabanan ibiltzen gara, merke-merke. Bidaiatzeko, gogoia eta denbora behar dira.

Hiru seme-alaba ditut, eta harro daude nitaz; hala ere, batzuetan esaten didate denbora gehiegi ematen dudala kanpoan. Hurrena, Zeelanda Berria, Brasil eta, agian, Bali bisitatu nahi ditut bizikletaz, nekatu arte.

Une honetan, ez nuke nire bizitza inolaz ere aldatuko. Horrelaxe bizi nahi dut nik. Batzuek ezin dute, baina beste batzuk guztiaren beldur dira: bizitza zuk nahi duzun egunean alda daiteke.

Inoiz ez da berandu bizitza berriz deskubritzeko eta unean-unean nahi duzuna eta gustuko duzuna egiteko.



Belgika hegoaldean jaio nintzen, eskualde frankofonoan. Bost anai-arreba ditut. Nire ama etxekoandrea zen. Orain amak egiten zuenera itzultzen ari naiz: semea zaindu, herri txiki bateko bizitzaz gozatu, ogia egin, baratzea landu...

Txikitatik oso ikasle ona izan naiz. Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi nuen eta arte eszenikoen eta zinemaren arloko master bat egin nuen. Bukatutakoan, bidaiatzea erabaki nuen. Lehenago motxila hartuta Quebecen, Europa ekialdean, Frantzia eta Italian izana nintzen; beraz, Europa ezagutzen nuen gutxi gorabehera, eta Hego Amerikara joatean erabaki nuen. Motxila bizkarrean hartuta ibili nintzen sei edo zazpi hilabetez. Natura eta neure burua gertuagotik ezagutzen saiatu nintzen, eta proiektuak bilatzen aritu nintzen, horietan lagundu ahal izateko. Permakulturako prestakuntza jasotzeko proiektu bat aurkitu nuen (ekosistema naturalaren eredu eta ezaugarrietan oinarritzen den nekazaritza-, gizarte-, politika- eta ekonomia-diseinuaren printzipioen sistema), eta herrixka ekologiko batean bizitzen egon nintzen. Beregain izatea eta bizikidetzatza zer diren ikasi nuen, baita dirurik gabe bizitzen, naturara gerturatzen eta norberaren baratzea edukitzen ere (etxean ere baneukan baratzea, baina ez nion garrantzirik ematen).

Nire herrialdera itzuli nintzenean, antzoki batean aritu nintzen lanean, harreman publikoen arduradun gisa. Mundu hori ere gustatzen zait, baina behin eta berriz errepikatzen zen ideia bat neukan barruan: “hau ez da benetan egin nahi duzuna”. Belgikatik atera eta beste plan batzuk bilatu nahi nituen. Espainiara etorri nintzen, hainbat proiektutan parte

hartzera; besteak beste, Andaluzian, Madrilgo mendilerroan, Valentzian eta Tarragonan bizi izan nintzen, 10-15 pertsonako komunitateetan. Gauza asko ikasi nituen: ogia egiten, ahuntzak eta ardiak zaintzen... Baina, batez ere, giza harremanei buruz ikasi nuen. Bruselatik landa-mundura etorri nintzen; bat-batean ez neukan ezer eta baratzean landutakoa jan behar nuen. Han ezagutu nuen nire mutil-laguna; biok ideia berdinak geneuzkan.

Pixka batean bidaiatu genuen. Bera itzuli egin zen, lan egin behar zuelako, eta nik jarraitu egin nuen, baina azkenean elkartu ginen eta bizi-proiektu bat eratzea erabaki genuen, Labrazan: “Urtadar”. Birsortzean eta oinarrietatik suspertzean datza, bidean ikasitakoa ardatz hartuta eta gure egunerokotasunari irteera bat emanez. Buru-belarri murgilduta naukaten proiektuen plataforma gisa ikusten dut. Proiektu horien artean garrantzitsuena, zalantzarik gabe, nire semea da; hori dela eta, ahalik eta denbora gehiena igarotzen dut berarekin.

Etxean egoteak haurrei ematen dizkiedan ingelesezko murgiltze-tailerretako jarduerak prestatzeko aukera ematen dit (pedagogia alternatiboak erabat harrapatu nau). Oiongo ikastolan eta Gorrebuston egiten ditut tailerrak: antzerkia ingelesez, inprobisazioa, sukaldaritza... Uste dut ikasteko beharrezkoak direla emozioak. Emozio positibo bati lotuta ez bada, oso zaila da ezer ikastea; horregatik, haurrei gustatuko zaizkien alternatibak bilatzen saiatzen naiz. Udan kanpaldiak egiten ditut, naturan sortzeko, ingurunean duguna erabiltzeko eta zentzumenak pizteko helburuarekin. Dantza afrikarreko eskolak ere ematen ditut, eta nobela-ipuin bat daukat argitaratuta, “La serpiente, el puma y el cóndor” izeneko. Nire bidaiak izan nituen inspirazio-iturri, batez ere Coroico-n, Bolivian, ikusitakoak. Frantsesez idazten dut, eta gaztelaniaz irakurri. Euskara ikasten ari naiz eta horretan nabil, oraingoz poliki-poliki.

Beste proiektu bat ere badaukat buruan: okindegi ekologiko bat egitea. Egur-labe bat egiteko eta ogia erretzeko leku bat aurkitu nahi dut (gau egun nire etxerako ogia egiten dut, ama-orea erabiliz). Niretzat garrantzitsua da ondo jatea, produktu ekologikoak kontsumitzea eta gure kabuz bizitzeko gai izatea, baina badakit zaila dela: saiatzen naiz kontsumitzen dudanaren zati handi bat neuk egiten, edo tokiko merkatuan erosten. Horretarako, komunitate-baratzean aritzen naiz lanean, eta hortik elikagai mordoa eskuratzen ditugu. Batzuetan beldurra ematen dit aukeratu dugun bideak, ez baita bide klasiko, baina horretan sinesten dugu eta horretarako ahaleginean jarraituko dugu.



Betidanik sentitu izan dut nire herriaren etorkizunean inplikatzeko nahia. Imajinatu ezin nuena zen Lapuebla de Labarcako alkate izatera iritsiko nintzenik.

Lapueblako ikastolan ikasi nuen, euskaraz. Ez dut hizkuntza hori ahaztu nahi, eta ahal dudan guztietan erabiltzen dut. 16 urte nituenean, aisialdiko begirale titulua atera nuen, eta haurrentzako hainbat proiektutan lan egin nuen; besteak beste, gazteentzako zentroan, udako jardueretan eta liburutegian.

Turismo ikasketak egin nituen Logroñon, eta konturatu nintzen beharrezko zitzaidala ingelesez jakitea. Ez nintzen horren oso zalea, baina ikasi behar nuen. Asko eskatzen diot nire buruari; horregatik, zerbait ez dakidanean, nire buruari helburu bat jartzen diot eta erdietsi egiten dut. Estatu Batuetara joatea erabaki nuen, *aupair* programa batekin. Zuk familia hautatzen zenuen, eta familiak zeu. Filadelfiara joatea egokitu zitzaidan; urte eta erdi eman nuen bertan, ingelesez ikasten. Hasierako egunetan Euskadiko neska bat ezagutu nuen, eta hark izugarri lagundu zidan; izan ere, Lapueblatik ateratzen nintzen lehen aldia zen, maleta batekin eta denbora luzerako.

Oso gustuko dut hitz egitea eta parte hartzea; hori dela eta, betidanik oso sartuta egon naiz herriko jardueretan. Zortzi urtez elkarteko batzordean egon nintzen, antolakuntzan eta eskatzen ziguten gauzetan laguntzen: mahats-biltzearen jaia aurkeztea eta abar.

Politikan egoerak bultzatuta sartu nintzen. EAJ alderdiaren jarraitzailea naiz, eta etxean hurbiletik bizi izan dut, batez ere nire osabari esker. Hark animatu ninduen. Ez nuen uste alkate izatera iritsiko nintzenik, baina dagoeneko urte eta erdi da alkate naizela. Niretzat, proiektu bat da, nire bizitzako zenbait urte, beste bizipen bat. Ahal dudan neurrian laguntzen saiatuko naiz; niretzat positiboa izango dela espero dut, eta herrian nire marka uzten saiatuko naiz. Ez larritzen saiatzen naiz, badakidalako aldi baterako baino ez dela. Gaur egin dezakedana egingo dut; ez dut biharamunean pentsatzen. Nire ogibidea dut, ez dut seniderik nire kargura, eta beste esparru batean lan egiteak ez nau kezkatzen. Aurretik, upategi batean egiten nuen lan; oso gustuko dut mundu hori. Noan tokira noala, dudan guztia ematen dut, onerako zein txarrerako. Badakit ezin naizela aldi berean hamaika tokitan egon, ezin dudala dena egin; hala ere, batzuetan saiatu egiten naiz, eta akituta bukatzen dut. Hala ere, pertsona bera izaten jarraitzen dut. Ez naiz klasismoen zale, eta uste dut denok berdinak garela. Bakoitzak bere lanpostuari dagozkion betebeharrak egin behar ditu, eta lan hori ahalik eta ondoena egiten saiatu.

Batzuetan esaten didate mundu guztiarekin hitz egiten dudala, baina gustuko dut jendearekin egotea eta haien gorabeherak entzutea; izan ere, uste dut asko ikas daitekeela horrela. Gaur egungo gizartean hainbat ideia, kultura, arraza eta sinesmen nahasten dira, eta horrek gure udalerriak aberasten ditu. Batzuetan umiltasuna falta zaigu, ez baitugu ikusten gizaki guztiok sentimendu berdinak ditugula: ez ditugu berdin adierazten, baina sentimendu berdinak ditugu.

Etorkizuna haurrengan islatzen dela uste dut. Haiek ikuspegi zabalagoa dute, ez dute hainbeste mugarik. Gure ardura da haurrak berdintasunean hezte eta ingurumena, gizartea, eta beren buruak errespetatzen irakastea. Uste dut ez dudala asko behar bizitzeko, aberasgarri zaidan jendez inguratuta egotea besterik ez. Alderdi positiboa ikusten baduzu, aurrera egin dezakezu; bestela, gizartea ez da mugituko.



Ni jaio nintzenean, ama hil egin zen. Horregatik, lehen 14 hilabeteetan, amamak hazi ninduen, titia ematen zidan Ekorako emakume baten laguntzarekin.

Gogoan dut eskolan Eibarko irakasle bat genuela, eta euskarazko abestiak irakasten zizkigula: “*aldapekosagarrarenadarrerenpuntan...*”. Gerra hasi zenean, ihes egin zuen, eta ez zen itzuli. Garai hartan 12 urte nituen; horregatik, ondo gogoratzen dut.

Aita benetan bakezalea zen; esaten zuen ez zela inor hil behar, gero errebantxa etortzen zelako, eta mendeku asko egongo zirela. Jendeak auzokideak salatzen zituen, eraman eta erail zitzaizkion; hala ere, Bilarren ez zuten inor hil. Garai hartan, estraperlista batzuk Aldea eta Bernedora joaten ziren garia ehotzera. Kontu handiz ibiltzen ziren, Guardia Zibilak ez harrapatzeko. Lan handia egiten genuen, eta etxean edo herrian zegoena jaten genuen. Txerriak, unxiak, oiloak, ahuntzak eta fruta-arbolak genituen. Harategi bat zegoen; liburuxka eraman behar zenuen, apuntatu egiten zuten eta garia eultzitzen zenuenean, hara itzuli eta ordaindu egiten zenuen. Arropa behar zenuenean, Lantziegoko edo Guardiako jostunenera joaten zinen. Jende gehienak arropa oinordetzan jasotzen zuen, baina nik ez nuen ahizparik; ondorioz, arropa berria izaten nuen. Bartzelonatik ekarritako oihalez egindako soineko eder-eder bat dut gogoan. Garai hartan, egunero joan behar izaten genuen mezetara: astean zehar,

meza egoten zen, eta gauean, berriz, errosarioa; igandetan, egunean bi meza egoten ziren, eta larunbatetan konfesatzera joaten ginen, nahiz eta beti gauza bera esaten genuen. Igandetan, goizeko zortzietan meza txikira joaten ginen eta, gero, lanera.

Amama zaindu nuen 92 urterekin hil zen arte; aita eta neba ere nik zaindu nituen. Berandu ezkondu nintzen, aitak ez zituelako ezkongaiak gustuko. Amari gertatu zitzaionaren ondoren, zaintzapean ninduen, eta etxeko “neskame” izan nedin nahi zuen. 27 urte nituenean, ahaleginak egin nituen mutil batekin egoteko; gogor jarri nintzen, aitarekin hitz egin nuen, eta esan nion nire bizitzaren jabe izan nahi nuela. Esaten zidaten nire ezkongaiak ez zuela presentziarik; oso ederra ez bazen ere, pertsona ona zen, langilea, eta senar ona izan zen. 31 urterekin ezkondu nintzen, eta lau urtean bi seme eta bi alaba izan nituen. Mutilak eskolara bidali genituen: zazpi eta bederatzi urtez ikasi zuten, hurrenez hurren. Neskak Logroño eta Gasteizera bidali genituen lanera.

Ezkondu baino lehen, larrean lan egin gabea nintzen, etxea, aita eta neba, peoia, zaindu behar bainituen. Ezkondu ondoren, amaginarreba umeekin gelditzen zen eta ni larrera bidaltzen ninduen. Batzuetan, oso urrutitik itzuli behar izaten nuen seme-alabei titia emateko. Gaztetan lan handia egin genuen, baina nagusitan gozatzeko gai izan ginen: 17 urtez, urtero bidaian joaten ginen beste bikote batekin.

Gaur egun, ez naiz egonean egoten: kakorratz-lanaz parpailak egiten ditut gero oparitu egiten ditudan eskuoihalak apaintzeko, puntuzko jantziak egiten ditut nire birbilobentzat eta asko irakurtzen dut. Aita beti egoten zen “El pensamiento alavés” egunkaria irakurtzen; agian hortik datorkit zaletasuna. Bilarreko liburutegiko bazkidea naiz, eta nire bilobek nirekin partekatzen dituzte haien liburuak. Herriko gazte batzuei ikerketa bat egiten lagundu diet; ikerketaren xedea zen herrian erabiltzen ziren eta nolabait euskararekin lotura zuten hitzak aztertzea. Baliteke etorkizunean liburu bat idaztea bildu duten informazio guztiarekin. Bai proiektu horretan bai bizitzako beste hainbat alderditan, nire auzokidearen laguntasuna eta laguntza dauzkat.

I.



Bizitza gogorra da batzuetan, eta gutxien espero duzunean, goitik behera aldatzen da; horrelakoetan, nola bizi birplanteatzeko beharra sortzen zaizu, aukeratu eta erabakitzeko beharra.

Lantziegokoa naiz, eta bertan dauzkat nire bizitza pertsonala eta profesionala. Nire ama euskara irakastera etorri zen Lantziegora. Lehenengo euskaltegia sortu zuen, eta gero ikastola; ni neu ikastetxe horretara joan nintzen, eta gaur egun nire alaba ere hara joaten da.

Unibertsitatera joan aurretik hil zitzaidan ama. Aitak esan zidan Bartzelonan ikasi nahi banuen, lasai joateko, eta hala egin nuen. Zinemaren munduko karrera pribatu bat ikasi nuen: muntaia eta postprodukzioa, eta zuzeneko soinua. Udan Almeríara joan nintzen film bat grabatzera eta, amaitzeko gutxi falta zela, nire aita ospitalean zegoela esanez deitu zidaten: minbizia zuen. Une horretan, Bartzelonan zer neukan eta Lantziegon zer baloratu behar izan nuen, eta azkenean jaioterriak irabazi zuen. Pena handia ematen zidan mahastiak saltzeak, erosle posible ugari banituen ere, eta azkenean neure gain hartzea erabaki nuen; azken batean, zailena egina zegoen: mahastiak banituen eta makinak ere bai. Ni paperez arduratzen nintzen eta nire osaba mahastiez, baina egun batean (mahatsa biltzeko garaia baino lehen) mahastiez ere neu arduratuko nintzela esan nion. Ez neukan ideiarik ere, baina gogorik ez zitzaidan falta. Lehenik eta behin, traktorea gidatzen ikasi behar izan nuen. Osabak oinarritzko argibide batzuk

eman zizkidan, eta gero praktikatu egin behar izan nuen. Mahatsondo bat baino gehiago harrapatu nituen eta denetarik pasatu zitzaidan, baina pixkanaka ikasi nuen. Mahastiekin hastean, dena ekologikoa izan zedila nahi nuen, eta jendeak esaten zidan erotuta nengoela, mahastiak lehortu egingo zitzaizkidala. Zalantza izpirik gabe, botilaratzeari ekin nion. Hasieran gogorra izan zen, upategian inbertitzeko jarri behar izan nuen diruarengatik, baina oso pozik nago eta jarraitu ahal izatea espero dut. Gaur egun nire bikotekideak laguntzen dit, eta baita anaiak ere, gero eta interes handiagoarekin, gainera.

Ardoa saltzea ez da erraza, lehia handia baitago; hori dela eta, bereizgarriren bat eduki behar da. Egile-ardoa egiten hasi ginen, “Malas Piedras” izenekoak. Lakratuak eta eskuz zenbakitutako etiketak ditugu. Gero, sulfitorik gabeko ardoa (Can Roca-n saltzen dute) eta ardo zuria egiten hasi ginen. Ondoren, gure izaerarekin eta ardoa bizitzeko moduarekin bat zetozen etiketak diseinatu genituen. Upategiaren eta ardoen izenek lotura dute nire familiarekin eta/edo Lantziegorekin.

Ardoaz gain, olio ekologikoaren produkzio txiki bat ere badugu; ehunka urteko olibondoen olibaz egiten dugu. “La Abubilla” deitu diogu, herriko kondairaren omenez.

UAGAKo (Arabako Nekazarien Elkarte) bazkide inplikatu naiz, eta inguru hauetako interesak Kontseilu Arautzailean defendatzeko ardura daukat.

Urteak igaro dira eta ez naiz damutzen hemen geratzea erabaki izanaz, kontrakoa baizik. Enologiaren mundua asko gustatzen zait eta esperimendatzeko, berritzen eta gure lorpen txikiei eusten jarraitu ahal izatea espero dut, gure lanaren eta ahaleginen bidez.

Halako esperientzia batek bizitza ikusteko modua aldarazten dizu. Orain ez naiz horren handinahia, eta egunero gogoratzen dut bizirik nagoela.



Lau urterekin iritsi nintzen Samaniegora, eta, ordutik, denboraldi luzeak kanpoan igarotzen baditut ere, lurraren eta hazten ikusi ninduten mendien deia sentitzen dut. Orduan etxera itzultzen naiz, zenbat denborarako jakin gabe.

Eltziegoko eskolan ikasi nuen, eta 13 urterekin DBH egitera joan nintzen Lapueblara. Hasieran zailtasunak izan nituen euskararekin, baina irakasleek asko lagundu zidaten. Batxilergoa bukatutakoan Gasteizera joan nintzen, Gizarte Langintza ikastera. Karrerako hirugarren urtean praktikak egin behar ziren, eta autonomia-erkidegoan bertan edo atzerrian egin genitzakeen. Lankidetza-bekak bilatzen aritu nintzen, eta azkenean Argentinara joan nintzen. Ikaskide batekin eta psikologo batekin batera joan nintzen, eta suizidioaren errealitateari aurre egiten laguntzen zuen elkarte batean aritu ginen. 20 urte nituen garai hartan eta oso berezia izan zen; lehen aldiz, forma eman genion ordura arte ikasitakoari.

Aldaketa handia izan zen Samaniegotik suizidioaren eta Latinoamerikaren errealiterako jauzia. Genero-indarkeriaren biktima ziren emakumeekin ere lan egin genuen; emakume haiek etxe berezi batean zeuden, beren seme-alabekin eta bakoitza bere historiarekin. Beti iruditzen zitzaidan ez nengoela behar adina prestatuta istorio haietarako.


Itzuli egin nintzen, Antropologia ikasi nahi nuelako; izan ere, herri indigenak interesatzen zitzaizkidan. Baina ez ninduten hartu. Ekainean itzuli nintzen, eta urtarrilean Haitiko lurrikara gertatu zen. Hegoalde gizarte-etxeko elkartze-aretoan ari nintzen lanean, eta Gasteizera bizitzera

joan berria nengoen. Alabaina, lurrikararen irudiak ikusitakoan, ziur jakin nuen hara joan behar nuela. Argentinan hartu ninduen elkarterekin hitz egin nuen eta, astebetean, lana utzi, maleta prestatu, txertoak hartu eta Haitira joan nintzen. Ez nekien nola esan gurasoei, baina erraza izan zen eta erabat babestu ninduten. Esperientzia gogorra izan zen. Larrialdiko laguntza talde bat joan ginen: 11 erizain eta 3 gizarte-langile. Hasiera batean, behar zen guztian laguntzen genuen, eta gero Leoganera joan ginen, umezurztegi batera. Laguntza psikologikoa ematen genuen, higie- eta osasun-gaiak lantzen genituen, haurrekin jolasten genuen, haien bizipenak partekatzen genituen...

Lau hilabete han igaro ondoren, Samaniegora itzuli eta dirua biltzen hasi nintzen. Bingoak eta kontzertuak antolatu nituen, ardoa saltzen aritu nintzen... Bildutako diru guztia hara bidali nuen, umezurztegi berri bat eraikitzeko. Ikusi nuen denon artean gauzak alda daitezkeela, eta horrek aurrera jarraitzeko gogoia berreskurarazi zidan. Hala, Bilbora joan nintzen, Nazioarteko Lankidetzat ikastera. Urtebete igaro nuen, eta Nazio Batuen beka bat lortu nuen, bi urtez Hondurasera joateko, genero-gaiak lantzerat. Partaidetzat politikoaren arloan lan egin nuen, hainbat alderditako emakumeekin. Zoragarria izan zen; hainbat alderdi politiko elkartzen genituen, talde bat osatzeko, eta emakume haiek, denek batera, generoarekin lotura zuten erreklamazioak egiteko. Emakume indigenen taldeekin ere lanean aritu nintzen, partaidetzat politikoa landuz, baina gizarte-erakunde mailan eta haiek herri gisa aitortuak izan zitezela lortzeko.

Lana gustatu zitzaidan, baina lankidetzat ez zen nik uste bezalakoa izan, eta nire lekua bilatzera erabaki nuen. Sei hilabete eman nituen Guatemalan, eta gero beste bi Latinoamerikan zehar, motxila bizkarrean hartuta. Auto-stop bidez mugitzen nintzen, kanpin-dendan egiten nuen lo, lan boluntarioa egiten nuen baratze eta eraikuntza ekologikoetan, eta geure eskuekin sortzea zer-nolakoa den ezagutu nuen. Zenbait herrixka ekologiko ere ezagutu nituen, Nafarroan, Gipuzkoan eta Iparraldean.

Samaniegora itzuli nintzen, hemen egotean zer sentitzen dudana ikusteko. Nire burua kokatzeko beharra daukat, eta etorkizunean ere uste dut zoriontasuna bilatzeko bidean aurrera jarraituko dudala. Badakit jendeari beldurra eragiten diola nik bizi dudana etengabeko ziurgabetasunak, baina nik uste dut horrek askoz ere aukera gehiago ematen dizkidala, eta neure etorkizuna eraikitzeko ahaleginean jarraituko dut.



B.

Jaiotzez kubatarra, adopzioz mañuetarra.

Nuevitasen jaio nintzen, Camagüey probintzian, Kuban. Gogoratzen dut txikitik ez genuela ezertxo ere, baina oso zoriontsu nintzen. Nire aitona-amonak 1900ean iritsi ziren Ingalaterratik Kubara; han etxe handi bat erosi zuten, eta eskola eta denda bihurtu zuten. Ondoren nire gurasoek hartu zuten oinordetzan, eta bertan igaro nituen nire lehen urteak. Amona izen handiko irakaslea nuen, eta hezkuntzaren garrantzia irakatsi zidan. 16 urterekin ezkondu eta seme-alabak izan nahi nituela esan nion, eta sermoi galanta bota zidan; ikastea behar-beharrezkoa zela esan zidan, eta buruan daukat oraindik ere. Semeari ere horixe transmititu nahi diot. Erizaintza ikasi nuen Camagüeyn; 3 urte eman nituen unibertsitatean eta urtebeteko lan-aurreko praktikak egin nituen Nuevitasko ospitalean. Pila bat ikasi nuen eta asko gustatu zitzaidan; hori zela eta, lehen mailako arretan hasteko aukera izan banuen ere, ospitalean jarraitu nuen, pediatrian. Soldata oso txarra zen (12 ordu 15 euroren truke), baina nire pazienteen oroitzapen oso onak dauzkat; lanaren alderdirik bihozberena nuen gustuko.

30 urte nituela iritsi nintzen hona, duela 17 urtetik nire senarra denari esker. Gure historia beste askorena bezalakoa da: elkar maite genuen eta zailtasun askori egin behar izan genien aurre elkarrekin egoteko. Kubatik irteteko ezkondata egon behar genuen, eta nik profesionalen liberalizazioa eskatu behar izan nuen. Askok itxaron

behar izan genuen eman zidaten arte. Hasieran aldaketa gogorra izan zen. Gasteizera iritsi nintzenean izugarrizko hotza egiten zuen; hezurretaraino sartzen zitzaidan, eta eguzki triste hori ez zen erabat ateratzen. Denboraldi baten ostean, Mañuetara joan ginen. Etxe handi eta hotz bat genuen, eta biok bakarrik geunden han. Gauza asko ikasi behar izan nituen; izan ere, amak eta amonak dena egiten zidaten Kuban, nik ikasi egiten bainuen. Harrera oso ona egin zidaten herrian eta senarraren kuadrillan, eta pixkanaka ohitzen hasi nintzen.

Bi urtera nire semea jaio zen, eta hori izan da inoiz izan dudana ikaskuntzarik garrantzitsuena: erditzeak sustraiak botatzen irakatsi dit; nirea ez den bizitza bat bizitzen, semearen bizitza baita garrantzitsuena. Semea pixka bat hazi zenean, ikasteari ekin nion. Gidabaimena atera nuen; izan ere, zonalde honetan behar-beharrezkoa da batetik bestera mugitzeko. Eta, halako batean, nire erizaintza-ikasketak homologatu nituen. Logroñon egin nuen, gertu geratzen zitzaidalako. Hiru ikasgai besterik ez nituen, eta praktikak San Pedro ospitalean egin nituen. Mendeko pertsoneri arreta emateko profesionaltasun-ziurtagiria ere lortu nuen.

Nire gaur egungo eta etorkizuneko erronka euskara ikasten jarraitzea da. Orain alboratuta daukat pixka bat, ez baita erraza lanarekin eta familiaren beharrekin bateratzea, baina ez dut ikasitakoa ahaztu nahi. Euskararen okerreña da hemen ez dela hitz egiten kalean, eta zailagoa da ikastea. Ikasketak homologatu ostean Osakidetzan eta Aldundian eman nuen izena. Uste nuen denbora asko igaroko zela lanerako deitu arte, baina ez zen hala izan eta zazpi urte daramatzat lanean dagoeneko.

Batzuek esaten dute beren bizitza aldatuko luketela; nik, oro har, ez nuke ezer aldatuko, ezta egiten ditudan “garrasiak” ere. Gauza bakarra eskatuko nuke: nire familia gertuago edukitzea, gurasoak batez ere. Ez nuen inoiz uste izango amarengandik bereiziko nintzenik, eta orain izugarri sentitzen dut haren hutsunea, hiru urte baitaramatzagu elkar ikusi gabe. Egungo gizartean garrantzi handia ematen zaie gauza materialei, eta garrantzitsuak dira, baina afektibitate-falta ezin da ezerekin ordaindu.